

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Irugarren urtea - Pamplona - Marzo - 1968 - Epaila - Iruña. 25'gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



Naparroko erregegaia

Naparroak izan du errege bat inoiz agindu etzuen. Bide erditan gelditu zen erregea. Ama on batekin, aita maltzur bat sortu ez balio zeruak!! Gure «Principe de Viana» txakur txiki bat bezala izan zen bere aitaren esku zikinetan.

Gauza onak ba zituen: argia zen eta biotz onekoa. Ikasia. Latinetik ederki itzultzen zituen liburuak, eta idazle polita. Erria ere berekin zeukan, gañera. Aita maltzur batendako onegia bezala.

Akatsak ere ikusten dizkiogu, eta ez txikiena bere kemen eskasa; atzera edo aurrera egiteko behar izaten den kemena. Ezaren eta baiaren erdikoa zen eta, arte ortan nahi zuen guzia egiten zion besteak.

Ogeita bat urte pasa zeuzkan ama iltzean. Etzen aurra. Gure lege zaharren eran, ama bai-zen Naparroko erregeen alaba, bera zen erregina; eta aita etzen ezer naparrentzat. Amaren burutik semearen bizkar gainera etor behar zuen legez erregetza. (1442).

Baño, beste asmo batzuk zituen Aragoiko erregeak, eta etzion utzi semeari pakean. Beretako nahi zituan denak.

BIGARREN ALDIKO EZKONTZA

Bera naiko etzela, etzan ohea bi urte baño len aita etxera ekarri zuen emakumea. Erregegaiarendako ifernuko zata baña gaiztoago. Len gose eta orai gosearen gose. Aragon aldean bizitu balira ere! Baño, ez; Naparroa maite.

Aurra egiteko joan ziren emendik; eta ez irrutira joan ere! Xabier pasatu eta, Aragoiko lenbiziko errian sortu zitzairen aurra. Au izango zen Fernando Katoliko, Naparroaz jabetu zen «Principe de Viana»ren anai erdia. Eta Sos, ura sortu zen errixka.

ISABEL

Gazterik ezkondu zen gure erregegaia (1439). Agnes, Frantziko Cleves'tarren alaba zuen emaztea. Ederra omen zen. Etzion aurrik eman. Bederatzi urte garreneko il zen (1448).

Ogeita zortzi bat urte besterik izango etzitzen errege gaztea berriz ezkondu nahian astea, ez da arritzeko. Len Frantzira bezala, Gaztel aldera jo zuen oraikoan. Ixilka asi zuen Isabel'ekin adiskidantza. Alare, aitaren belarritara nolabeit aillatu ta, Lerida'ra deitu zuen semea. Bere begien aurrean lotzea agindu eta, preso, Barzelonara ereman zuen. Beste batzuk ziren aitaren asmoak. Betiko kanta. Aztapuak. (1460).

Oraikoan etzakion ain ongi atera bere jokua. Katalandarrak semearen alde jaso ziren; berdin, beste lurralde batzutan ere. Aita Sanduak berak erregegaiaren alde zerbait egiteko eskatu zien obispo katalaneri. Beharko ta, askatu zuten Karlos IV garren Naparroko erregegaia (1461). Baño, bost illabete baño len, udazkenean, etzakigu nola, itzali zen betiko Barzelonan. Gerotik ez du inork ixildu aita ilarazi zuelako zurrun-burrin latza. (1461).

Beste gañerakoa danok dakigu: Fernando gaztea bere anai zaharrenaren andregaiarekin ezkondu eta biak izan ziren Errege Katolikoak.

Txikia izateko ukan du etsai Naparroak! Ba dakizue bi txakur gose ezur luze bati ozkaka? Ala ikusi zuen berak, amarengandik artua zuen Naparroa. Me eta zorrotz, gosea bera bezala, bi txakurrak. Frintzia alde batetik eta bestetik bere aita. Ezurra, berriz, Naparroa.

Bi itzez esan zuen erriaren eta bere zorigaitza: «Utrumque roditur» (bi aldetatik ozkaka). Eta erdi bana jan, gero re, bien artean Naparroa!

J. M. S.

NUNGOA ZEN KRISTOBAL KOLON?

Gauza batzutan ainbeste aurreratzen ari geran bezala, beste batzutan geldirik gaude. Amerikano oiek, esate baterako, munduaren jabe eginak dira; eta lauetan eun urteren buruan, Ameriketako bidea ideki zuen gizona nungoa zen etzakigu. Beti, Italian sortua zelako ustean bizitu gera; eta orai esaten digute ezetz.

Eta gure galdera auxe da: nungoa zen Kristobal Kolon?

Azkeneko urte auetan Kolon'en arraztiñak an edo emen arrapatu dituztela entzutera jarriak gaude. Baño, azkeneko berriak dira politenak. Mallorka'ko batek dionez, gure «PRINCIPE DE VIANA»ren seme baxtarta da Kristobal Kolon.

Mallorka'n «Porto Colom» esaten dioten itsas ondoan ba da, SANTUERI izeneko gaztelua. An egon zen preso, bere aita ereman ta Naparroko erregegaia, 1459'ko Agustuaren 28'tik asi eta 1460 arte. Ortan ez dago dudarik. Baño Juan Cerdá jaunak dio, ba dela gaztelu inguruan «Alqueria roja», eskuaraz «Borda gorri» esango ginuken baserria. Berez Kolon' darrak omen ziren etxe artan; eta duela urte gutxi galdua izan behar dute Kolon deitura.

Erregegaia alargun zegon; berrogei urtetan zebillen eta emakume bat ba zen artean. «Esperantzetan utzia duten nekaz okupatu zu», idatzi zion andik ateratzean, Castelladoriz Gobernadore jaunari. Andik urte bat barneko ila zen erregegaia.

Eta emen, orai, esamesak. Margarita Bordagorri uste dute zela nekaxa. Erregegaiaren-gandik ukan zuen semea izango zen Kristobal Kolon. Kolon'en bigarren deitura «Terrarubra» (lurgorri), baserriaren izena bezala jotzen dute.

Zenbat gauza illun Kolon'en bizian! Amairu urtetan Aragoiko erregearen kontra itsas-gudari izana; aren seme Fernando'k bere aurraren lagun artzen du Kolon'en semea.

Isabel'ek zuen Ameriketako gauzetan geienik lagundu; eta batez ere, mariñelaren aurrak bere inguruan azitzeko artu. Isabel, erregegai zenaren andregaiak!

Duke de Alba'k bere illoba Kolon'en semearekin ezkontzeko eragozpenik etzuen sortu. Eta batez ere, Ameriketako untxiak prestatzeko artean iru urte bota zituen Kolon'ek Medinaceli'tarren etxean. Denbora artako famili aberatsena. Nolaz ain adiskide? Ana, etxeko-andrea, ere Principe de Viana eta Maria Armendariz'en alaba baxtarta zen.

Beste gauza asko, oso jakingarriak atera ditu Juan Cerdá jaunak. Argiaren bidean sartu gera edo gau iluneko kanposatu argiak baizik ez tira? Eta orduan, nungoa zen Kristobal Kolon?

SAGI



VALORES REGIONALES

Por JOSE CASARES.

Regionalismo y espíritu universal no son términos opuestos. Es más, yo creo que la conjunción de ambos ideales puede ser una de las soluciones salvadoras de nuestra sociedad, quizás la única.

Se puede ahondar sin miedo en el alma de un pueblo, de uno sólo, sin que por ello se pierda el sentido de la solidaridad universal, más aún ganando en ese espíritu. «Ahondando en el alma de una región española, se escribió la obra más universal de todas las literaturas; yendo a rastras de las modas cosmopolitas nunca se ha hecho nada perdurable» (Julio Casares). Así es, con sus raíces en Castilla, don Quijote es universal. Partiendo de Guetaria, Juan Sebastián Elcano dará la vuelta al mundo. Podemos defender la región española y ser a la vez europeístas. No teman los del arraigo a ultranza que se hable de universalismo: bello ejemplo nos ha dado Paulo VI.


La región encierra fuerzas y valores que se han de poner en juego para detener el acelerado proceso de masificación de la sociedad, esa indiscriminada «acumulación de ciudadanos» que es terreno abonado para la pérdida de todas las libertades al estilo comunista.

Nuestras regiones tienen una honda raíz geográfica y demográfica; no son simples anecdóticas que se puedan reducir a lo pintoresco y lo folklórico. La región forja valores de civilización, de producción y de servicio. Crea realidades culturales, idioma, costumbres, arte y poesía. La región da cohesión a los pueblos y hace más factible la búsqueda de los valores superiores de la persona y de la sociedad. La región puede y debe vitalizar los cauces para el acceso de todos a la educación y la enseñanza, a la universidad y a la formación profesional. La región se conoce mejor a sí misma y encuentra soluciones, evoluciona con mayor agilidad cuando en su esfera de acción se siente responsable que cuando se ve teledirigida desde un centralismo igualitario y suspicaz.

Es triste que cada vez que se habla de las regiones españolas se piense en separatismos políticos. La región es una sociedad real, más o menos definida, que en España, históricamente, encontró para concretarse la fórmula foral. Las regiones se integran en el Estado nacional que completa y suple lo necesario al servicio de la Sociedad, creando una comunidad más rica, de más amplias posibilidades en el concierto de los demás Estados, etc.

Resulta ahora que por el camino de las soluciones prácticas, lo mismo que en Francia y en Italia (Alemania y Suiza siempre fueron federales), se está llegando en España a la conveniencia de estudiar la solución regional: la provincia se nos ha quedado una unidad demasiado pequeña para afrontar el desarrollo socio-económico. Pero al pensar en esas unidades mayores, habrá que tener en cuenta no sólo los factores económicos, sino también las realidades históricas sobre las que se asientan la diversidad de los pueblos de España, salvando siempre el triple patrimonio de la unidad nacional, la personalidad regional y la fe común.

«Eibar» errebistatik artua.



AGUR, OTSAILL!

Otsailla, orain arte, siñeste txarez inguratua iduki dute; errati ez-naigarriakin izendatua: «Zoritar illabetea»; «Karrakill egunak»; «OTSAILL, PAKERIK EZ, ZORITXAR BAI!!», zioten aintziñekoak.

Benetan, Euskal-Erriko zoko guztietan olako siñeskeriak ikusten ziran: sua an, sorgiñak urrutitu naitz. Belar batzuek (geyenetan «kardaberak») atean, bertze munduko indarrak etzaten gaitzik sortuazi etxeetan. Bearrik, bai, naiko atzenuak ta gordiak direla zorakeri ok (gure aintziñekoentzat, baizik, etziran zorakerik), yendeen siñis-men ta aonetatik!

Gaur, Otsailla urteen amabi illabetetik bat da, denantzako, bertze amaiken idurikoa ta ok beziñ zoriontsu-garria. Aldrebes xamarra, benetan, batzuetan ogei ta zortzi, ta noiz-beinka ogei ta bederatzi egun dauzkalako; baño bertzerik ez! Galdu du, ba, Otsaillak aspaldiko siñeste zozo ek; bertze izen egoki bat irabazi du, benetan, baizik: «Udaberri deile» edo «Udaberrien seaska». Aurten beintzat, alako iduria irakutsi digu:

Oroitzen zerate nola asi genun Otsailla? Gaur bezela, ortzegun bat genun. Goizean, otz: izotza. Eguardian; bero naiko latza. Illunabarrean, aize samiña. Benetan uda-berriko egualdea. Ala uste genun, beintzat! Zer gertatu zan egun ba-

kan batzuen barruan, baizik? Elur galanta azaldu genula etxeke atean, amestu ta usaindu gabetenik. Gogoratu zigun neguan giñela oraindik, ta elur-ormantzako baimena bazaukala, guri eskatu bearrik gabe.

Baño berriro epeltasunean jarraitu nai izandu zuan: Noiz-beinka kazkabar erauntsi bat bota ta, euria, aizegoa, goibel ta eguzki, dena nastuz (nasiaz). Neguen gordiñetasun guzia Otsaillan etorriko omen zan, baño ezda ala gertatu. Egualdi epe-lak iduki ditugu. Noiz arte?

Ínauteak ere or genitun Otsaillan: Egun zoragarriak gazteentzako. Ez ainbeste etxean gelditu bear genuentzako. Napparroan indar sendo ta azkarra dauka besta onek. Eskiñ guztietan gazteak, artarako jantziak edo ez, atez-ate ibil dira. Egia da iurralde bakoitzak eben erara (modura) jaitzen ditula egun ok; baita egia, guztiok, bekoak edo goikoak, danok «birautze» berara elgu geralla: ONGI IGAROTZERA (ongi pasatzera). Batzuetan gertatzen dira ustegabeteneko ta eznaigarriak, baño... zer egiñen dugu ba?

Ínautiak ziran Otsaillaren azken asnia. Ínautiak yoan dira... Otsailla ere iltzera ta, joana da, berekin daramaz poz ta karrakill guztiak.

AGUR, OTSAILL!

ANTON



ELIZAREN ITZA

GARIZUMA, PENITENTZI AROA

Garizumaren sarreran gure Aita Santu Paulo VI garrenak penitentziko ibillaldi bat egin ondoren Erromako erriarekin, mintzatu zakioten esanaz penitentziaren arazoa ziñez, arrunt ziñez, artu bear duela kristau erriak, ortarako konturatu bear duela oker egiñaz, gaurko eguneko zenbait kristauk ez dutela, ordea, ezagutzen oben edo pekatuaren garrantzi eta zama, ots, ez direla konturatzen, ortaz ez dakiotela sortzen ben-benetako damua.

Penitentziak, on-bide bezela, iru eginkizun deramazki, pekatuen nazka, zorraren ordaintzeko gogoa, berriz ez egiteko asmo sendoa. Pekatua, jakiñen gañean eta naita, askatasun osoarekin, Jainkoaren aurka egindako okerra da, egiterakoan liluragarri dan orrek, damuz nazkagarri biurtzerakotan, egindako makurraren beltzera eta itsusia nabaritu bear du, lotsatuta, nazkatuik gelditzeko. Au ez dute onartzen Luteru ta Protestante askok, auzentzat pekatua gizaki ustelduari nai ta naiez darion errua baita, guk badakigu ordea pekatu egitea edo ez egitea gure esku iduki dugula eta Jainkoak nai zuena egin bearrean gerok nai genduen aukeratu genuela, zenbatenaz garbiago ikusten dugun aldarte au, miñago lotsatiago izango da gure damua, minkatzago gure nazka.

Jaungoikoakiko zor au aitortu ondoan, ordaindu naia sortzen dakigu; nola? Jainko Beraren itzatic dakigu, Berak on-artzen digula. a) Ortarako egiten dugun oparia (sakrifizioa), b) beartsuei Bere izenean luzatzen diegun ogi-zatia, c) (geren soñari lengo atsegiñen ordez, jartzen diegun nekea (mortifikazioa) eta ori dena Jesukristo gure Jaunaren nekeekin bateratuta, Berarekin korputz bat bai gera. Berriz ere Paulo gure Aita Santu maitearekin esanen dugu, ziñez, arrunt ziñez, artzen ahal dugula penitentziaren arazoa.

ESKUALERRIKO LEIOA

DONOSTIKO LENEN MAILLAKO ESKOLETAN EUSKERAZ

Españiako «Lenen Maillako Irakaskintzaren Zuzendariak» («Director de Enseñanza Primaria» erderaz) esan du Donostiko Eskolategietan datorren kursorako euskera erakutsiko dela.

Euskeraren aldeko urrats aundi au Donostiko Aintamenduari eskerrak izan da. Donostiko Aintamenduaren kontzejal batzuen eskabidea onartuz Madrilgo Gobernuaren Edukaziorearen Ministroari eskatu zion bere eskolatan euskera erakusteko, eta Gobernuak eskari aipagarri oni baietza eman dio segittuan.

Aurrerapen ederra da erabaki au euskeraren bizkortzeko.

«EUSKERAZALEAK» ELKARTASUNA SORTU DA BILBON

Bizkaiko gizon-emakume batzuek

Bizkaian euskerari bizitasun, laguntza eta babespe emateko «Euskerazaleak» deritzan Elkarte bat eratu dute.

Beren lan-asmoak agertzeko Bizkaian eta Euskalerriko guzian Agiri bat zabaldu dute. Napparoko Diputazioarean ere Paper edo Agiri ori artu dugu. Ona emen diona la burki:

«Mundu zabaleko Unibersidade askotan Euskera irakasteko tokiak sortzen dituzte, anitxiñetako kultur-ondasun bizi ta baliotsua dala-koz. Gure erria, berriz, ainbat gizalditan (mendetan), naiz bizirik iraun izan, euskera, izkuntz bizi bezela, galtzeko arriskuan daukagu.

Gauza ain ederra galtzen uztea okerra, utsa da eta gure ondorengoek salatu ezdezaiguten gure laguntasuna eskeiñi nai diotegu euskeraren aldeko lanean jo ta ke lehendik lan egiten dutenei.

Gure lan-asmoak auzetek dira:

Erri-Agintariengandik euskerarenganako begirapen ta laguntasuna lortu-erazi... Gure mintzera irakasteko tokiak geiagotu...

Euskera ikasteko metodo berriak, egokiak argitaratzea...

Irakasle berriak bear dan bezela trebe izateko laguntasuna eskeiñi... Gure aurrentzako bi izkuntzako eskolak sortu.

Eta orrez gañera gure izkuntza maite au indarberritzeko legeen arabera egin litaken edozer egitea».

Eta beian Bizkaiko euskerazale famatu batzuek siñatzen dute. Oken artean Oleaga, Mikel A. Astiz, Eusebio Erkiaga, José Luis Bengoa, eta, eta.

Gure ongi-etorria «Euskerazaleak» deitzen dan Elkartasun oni biotzez bialtzen diotegu, eta euskeraren onerako izan dedilla. Agur biotzetik.

JUAN DE LANDA ZINE-GIZON FAMATUA IL DA


Bere sorterrian il da, Gipuzkoako Motriko arrantzale errian. Juan Pison Pagoaga izen deituz zana. Zinemunduan «Juan de Landa» ezagutua Inazio Zuloaga pintore aipatua izan zen bere laguna, baita ere Paulino Uzkudun boxeolari edo ukabikari aundia.

Hollywood deritzan Erri-Zinera joan zan eta Zinelaria edo Zine-artista egin zan. Ipar-Amerikan eta Españian pelikula pillo pat egin zuen.

Munduan zear ainbeste urte pasasu ondoren bere amak erakutsi zion euskera etzun ahaztu eta bere euskalduntasuna etzun galdu ere.

Goian Bego «Juan de Landa» motrikotan maitea.

XABIERREKO GAZTELUA



Graziako Bederatziurrena zela-ta Xabierreko Gazteluan Epailaren 4'tik 12 egunetara Nappar erri askotako bilerak izan dira, Frantzisko Sanduaren ohorez. Aurten Graziako Bederatziurrenaren egunetan emakumeen bilerak izan da, eta gizonetako atzeratu dute amazpigarrenarako. Predikalari Aita Mendizabal jesuita izan da. Jendea millaka egun oketan bildu da Gazteluan.

IKASTOLAK

ALTSASUKO ESKOLAK

«Bildur naiz eskuarazko eskolak asi eta aurrak etorriko ez ote diren...» —esan zigun norbaitek.

—Beti uste ortan biziko gera, ez ba gira noizbait asten, erantzun genion. Gero re, ala gertatzen bada, jakinaren gainean gaudela aitortuko dugu. Baño, nor daki...?

Eta uste gabekoa gertatu da; berrogei aurrendako, berrehun ba genituen. Biotza behar dute gauzak, eta biotzez jantzi dute altsasuarrak aurren eskual kezka. Nork esan, duela urte pare bat bakarrik, Burundako iri buruan ontara aillatu zaikenik!!

Egia esateko, etzen erreixa ango jokabidea. Bertako jendetan berrogei urtez berako gutxi eskuara dakiena. Gero, erritar bakoitzarendako, sei edo zazpi ba dira kanpotik etorriak; geienak lur berotatik. Eta negargarriena; andik eta emendik inguratzeten ziren guraso eskualdunak, etzieten beren aurreri eskuararik erakusten. Gure izkuntza zaharrendako, ondo gabeko putzu beltza zen Altsasu.

GAZTE JENDEAK NAHI BALIN BA DU...

Eta nahi izan du. Jende jatorrak nunahi ba dira, eta gaurko gaztedian geiago. Neska ta mutil, itzez eta idatziz, otz eta bero, —denetarik izan bai dute bidean—, barne mi-

na sortu dute errian; eta azken ontara indarrarekin, gañera.


Aur asko eta erakusle gutxi! ori ginuen koropiloa. Iru talde artu al izan ditugu: 120 aur, denak batera. Ortako, Josefina Agirre andereñoak bi eskola ematen ditu: eguerdi aurrean bat, amabi ta erdietatik, ordu-bitera. Eta bazkal ondoan bestea: ordu bi ta erdietatik irutara. Berrogei neskato talde bakoitzean.

Mutikoak eskola bakarrakin gelditu dira. Tomas Diaz erakusle dutela, atsaldako seiretan egiten dute beren saioa. Ez arritu Altsasun euskeraz entzuteaz. Aurrak, batez ere ehun eta ogei balin badira, ots asko ateratzen dute. Baño, jakin beste ainbeste izango direla artu ahal izan ez ditugunak.

AUNDIEN ESKOLAK

Eta ez ori bakarrik; ilabete onen asieratik aundien eskolak ere ari dira. Bi taldetan laurogei bat gizaki eta emakume, denak gazte eskuara ikasteko gogo sutuan. Auek ordu bana izaten dute egunean: atsaldako zortzitatik, bederatzitara. Eta bigarren taldeak, bederatzitak amarretara. Erakusle, Dabid Martxueta eta aita J. Beizama.

Gurea joana dela eta ezer egitekorik ez dela dioten guzien biotz altxagarri esaten dugu; izan fede gizonetan, gizonki jokatzu bakoitzak. Siniste aundikoena da geroa.



ALTSASU.—Euskera ikasten ari diren iru eskoletako aurrak. — (Foto IZOR)

ETA IRUNEN ZER?

Iruñen asko; ikastola kontuan iñun baño geiago. Nik eztaikit zergatik Iruñeko gauzak ez diren geiago aizatzen. Mesede aundia egin lezakete gure erritan. Duela zombait denbora Iruñeko saltzale bati entzuten genion: «aur txikiak dauzkat, baño ba dut gogo ikastolara bialtzeko! Zoragarri da Iruñen, erle-saskian bezala, aur aiek guziak ikastolako autoan ain goxoki eskuaraz entzuteal!».

Bi gauza ba dira esaera ontan: ongi ikusia dela Iruñeko Ikastola, eta ori berez asko da; eta itz oiek errian egin duten mesedea. Bi egun baño len etxez etxe ba zekiten. Erle saskiarena.

Zor aundia zuen Napparoko iri buruak eskuarakin. Burutik galtzen omen da arraia, eta Iruñetik galdu da Napparoko eskuara. Baserritar gizajo batzun gauza bezala bazterturik egon da denbora luzean; barre egiten zieten karrikan. Orai ez; ehun ta berrogeitamar aurtxo Iruñen eskuara ikasten ari direla jakiteak poz aundia eman die gure erritareri eta ez dira lotsatzen eskualdunak direla esaten. Uste zuten eskuarak etzuela ezertako balio eta orai Iruñen ikasten!

Napparoko aro berri au pozgarri da. Erronkaritik Altsasura eskuararen aldeko kezka ernagarria senditzean ezin zen gure iri burua bazterrean gelditu. Baño aitortu deza-

gun beingoan; ez da bazterrean gelditu eta bai deneri aurrea arrapatu! Zorionak eta eskerrik asko.

Eskualerriaren aldeko nappar adiskideak asko ta asko egin dute gure erriaren alde eta egingo ere. Iruñeko guraso eskualdun guziak inguratu ba laizke beren etxetan eskuara galtzen ez uzteko! Lenbiziko ikastola familia bai da!

Orrekin bakarrik, besterik gabe, Napparoko guziko erri eskualdunetan aundiena Iruña ginuke. Nola esnatu Iruñeko gurasoen konzintziak, ori egiten asteko?

Zaillago da orai arte egin duzue-na. Aurrera bakoitza bere aldetik lanean, gure aurrekoak merezi dute ta.

SAGI



ALTSASU. — Aundien ikastola (Foto IZOR)

Elizondoko eskoletan euskeraz erakusten asi dira

Nafarroa'ko Diputazioak euskerari buruz artutako erabakiak izan dute ondorio eta denok poztu gaitzen. Elizondo'ko eskoletan asi dire eskuara erakusten eta lenbiziko urratsak zallanak balinbadira oiek emanak daude. Eskoletako aurrek zazpi urtetatik amalau urtetarañoak eguneroko badute eskuarazko ikasketak; neskatikoei Manolita Fagoaga Andereñoak erakusten dabe eta mutikoei Jesus Jaimerena Yaunak; bi erakustaleak baztandarrak. Berrogei ta bortz neskatico eta bertze ainbertze mutiko ditugu eskuaraz ikasten ari direnak eta badirudi eskuara ikaste au zaletasun aundiarekin artu dutela, orrela yarraiki ezgeroz gure eskuarak izanen du erreliste indar aundia artuko baitu. Lan goresgarria bi euskal erakustaleena. Zorionak eta zuen lanak zitu ona eman dezala.

Gure erri erdaldundu onek bazuen ba zerbaiten bearra, lotsa ere bada Euskal erri erdi erdian kokatuak eta emengo aur eta gañerakoak Madrid'koak balirezke bezala. Beti ere ikastaldi oieri asmenta eman zaio eta bide onetik segi dezala, gure naikeria erdietsi artio.



NAPARROKO BERRIAK

Pozgarriak oraikoa Napparoon ditugun berriak. Eskuaren aldeko ipar aize fina jaso dela esango ginuke. Eta zer indarrarekin astintzen asia den bazterrak!

Lendik eldu dira gauzak. Duela urte bat, otsailean egin du ain zuzen ere urtea, erabaki eder bat artu zuen gure Diputazioak: eskual eritako eskoletan ordu erdi batez euskera erakusten asteko erabakia. Uste dugu eskuarak ez duela gure artean iñoiz eza-gutu alako esku ukaldi ederrik. Bultzada bikaña eman diote gure agintari agurgarriak Napparoko izkuntza zaharrari.

Baño, legea or zelarrik, etziran udareak bat batean ikusten asi; beste baratze belar eta landare guziak bezala denbora behar zuten gauza. Eta asi ziren, asi, profeta beltzen oyuak!

—Zer ari zerate? Nun dira agintarien asmo on guziak? Noizko aurren eskolak? (Geienetan gertatzen den bezala, berrek ezer egiteko gauza ez direnak ateratzen zituzten garraxi aundienak).

GURE JOKABIDEA

Guk ere lenbaitlen frutuak ikustea naiago izango ginuen. Alare, giro txarrarekin azia ereitea baño, etxean egotea obe dela ta, lurra irauli ta prestatzeari jo genion. Erritik sortu behar du, aurre-ra joateko, bizi-nahia. Goserik ez duenari jatekoa ematea, mando ilari zaldaria botatzea bezala da. Alperrik dena.

Gaur, ereiten asiak gera. Altsasu, Leitze ta Elizondo, gure lenbiziko alorak. Iru lur mota, iru baratze. Lenbiziko jokabiderako amets aundiko ereintza. Zer emango du bakoitzak?


Nik esango nuke lenbiziko lorean direla; beren inguruan sortu duten kezka eta asi-nahia lore ederra bait-da! Erri askotatik eldu dazkigu eskola billa. Eta ederrena, beren buruz eskolak asi dituztenak ere ba dira. Bera Bidasoa'ko ikastetxe bat dut gogoan. Altsate'ko auzoan, astean iru egunez, berrogei aurrek euskerazko eskolak ba dituzte. Zer udaberriko lenbiziko lora sumatzen den Napparoon!

BESTE ERRIAK NUN DITUGUN?

Bai; Diputazioak erabakiak beste erri moltsoa zekarren. Baño Erroma ere ez omen da egun batean egiña; esaera ala da beintzat. Nork daki denbora asko gabe esnatuz, joango ez ote diren eta denok nahi ginukena orduan izango dute.

Berri onak, beraz, Napparoon ditugunak; iñoiz ez bezalako eskual giro ona sumatzen bai da.

J. M. S.



IKASI, MIKASI...



¡Obispoan matalleko bat ez artzeatik...!

—Esan didatenez, zu zera Antonio...
 —**Bai, jaune.**
 —¿Zenbat urte dituzu?
 —**Emezortzi, jaune.**
 —Emezortzi urte ta ¿konfirmatu gabe?
 —**Konfirmatu bai ta, gañea, ez nai. ¡Je, je, je...!**
 —¿Lotsaik ez duzu esateko, ere?
 —**¡Ba...!**
 —Nola izanda ori?
 —**Suertez, jaune. Zortzi urte nithula, etorri zen Obispo gure errira, baño ni gaizki nitzen, gripeekin eo; oaiñ lau urte, berriz etorri omen zen, baño ni, suerte txarrez, oatzin neon, ta...**
 —Zure amak esan didatenez, datorren ostegunin, duzute Obispo Jauna konfirmaziotako.
 —**¡Ni aundii naiz, ta lotsa ematen dit mutiko muki-zuekin joateko...!**
 —Nork esan dizu thikitan bakarrik artu ditekela Sakramentu au? Nik ikusi det Konfirmazioa artzen, ogeita bi urteekin, apezetaako Ordenak asi baño len.
 —**Nik ez det apezetaako asmoik. Gañea, Konfirmazioa ez da bearrezkoa...**
 —Bear, bearrezkoa, ez; baño askoz egokia animaren bizitza bizkortzeko, bai.
 —**¡Obispoan matalleko'at ez artzeatik...!**
 —Egi da Obispo jaunak ematen diela aurrei xartako thikitho bat matallan, baño Siñest-indartze, edo Konfirmazioa gauze seriogoa da, ta konbeni zaizu zuri gai onetaz piske bat geiago jakitea. Ortarako bidali zaitu nigana zure amak.
 —**Esan beza baa, jaune, nai dun anbiste.**
 —Siñest-indartze edo Konfirmazioa, Eliz Ama Santaren bigarren Sakramentua da, Bataioan ematen zaigun fedea sendotzeko. Gure gorputzek bere bizitza duen bezala, animak ere badu bere bizitza; ta, bataiatzen denak, beste bizitza bat: JAINKOAN BIZITZA, au da, BERE GRAZIA. Bizitza au, auldu edo bizkortu ditek... Ara, bada, zergatik, ezagerara eldutzen geranean, Eliz Ama Santak ematen digun siñest-indartzeko Sakramentu au.
 —**¿Eliz Ama Santak jarritako Sakramentua da ordun Konfirmazioa?**
 —Ez, ez; sakramentu guztiak bezala, Jesukristok Berak jarria da.
 —**¿Zergatik ezin du ba eman erriko apezak? ¡Ezgiñe-ke olako istilluekin ibilliko!**
 —Eskuarki, edo geinez, Obispoak eman bear du. Aita Santuaren erabakiz, eliz-erretoreak ere eman dezake. Sendotza artzeko dagona gaxotu ta iltzeko zorian dagonen.
 —**¿Nor eta nola artu Sakramentu au?**
 —Amabigarren menderaño, bataio egunean eman oi zitzaizkien bataiatueri Siñest indartzeko Sakramentua ta Aldareko Jauna ere. Orain, Erromako Elizak beintzat, ezagera eskatzen du, aurra iltzeko zorian ez badago,

edo beste arrazoi aundirik ez bada. Gañera, grazian egon bear du Sakramentu au artzen dunak, eta siñestiareri asi-masietan aski jabetua. Orregatik galdegiten zaie aurrei Kristau-ikasbidea, edo dotrina. Beste gauze bat ere kontun iduki bear da: Sakramentu onek, kristau bikain egitea ondorio duelako, marka berezi bat uzten du animan, Jainkoaren etsaien aurka burrukatzeko; ta marka ori zeruan an agertuko da garaille atera diranen ezauzgarri.

—**Oandik ez dit esan beorrek, nola ematen den Sakramentu au, eta zeengatik ematen dion Obispo jaunak xartako'ana mutiko ta neskatoai...**

—Naiz dena ez, gauze nagusienak adieraziko dizkizut. Obispo jaunak, kantu eta orazio batzuen ondorean, itzalditxo bat egiten die Sakramentu au artu bear denai: bataioan artu zuten fedea gorde dezaten eta, ezagerara eldu eskero, peligro geiagotan arkituko direlako, eta orregatik artu bear dutela Siñest-indartze, edo konfirmazioko Sakramentua. Gero, Kristau-ikasbidean (dotrinan), ongi jabetuta dauden ikusteko, galde batzuk egiten dizkie. Belaxe, erriari begira ta eskuak guzien gañera zabaldua, Orazio au egiten du:

«**JAINKO BETIKOR GUZIALTSU, UREZ ETA ESPIRITU SANTUAZ MORROI AUEK ERNABERRITU BA TITUZU, PEKATU GUZIAK BARKATUZ: IXURI ETZAZU AUENGAN ZERUTIK ZAZPI DOAIEN JABE DAN ESPIRITU SANTU POZ EMALLEA; ZUGURTASUN ETA ADIMENAREN ARNASA; BURUBIDE TA KEMENAREN ARNASA; JAKIN GRINA TA ZUGANA GRINA; BETE ETZAZU ZUGANAKO BILDUR ARNASEZ, ETA MARKA ETZAZU KRISTOREN GURUTZE ZANTZUZ, AMEN.**»

Aurrak lerroan binaka doaz aldare aurrera, bataioko izena idatzirik eskuetan dutela. Aitautxiak mutikoeri ta Amautxiak neskatoeri, urbidu ala, eskuñeko esku ezarzen die eskuñeko sorbaldean, eta Obispo jaunak, eskuñeko beatz lodia Olio Santuz bustita, gurutze bat egiten die Kopetan, esanez:

«**N. (emen bakoitzen izena), GURUTZEAREN ZANTZUZ SIÑATZEN ZAITUT ETA OSASUNEZKO GANTZUZ-INDARTZEN, AITAREN, ETA SEMEAREN, ETA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN. AMEN.**»

Orduan, Obispoak, xartakoa ematen die matallean, esanez: «**PAKEA ZUREKIN.**». Esango balio bezala: «**¡Ja bizkor ibiltzen zeran kristau egin bearretan.**». Guzia bukatu, ta aurrekin batean Kredo ta Aita-gurea errezatuta, Artzai-bedeinkua ematen die.

—**Mille esker, jaune. Nik uste nun baño gauze seriogoa da Konfirmazioa.**

—Jesukristok Berak jarritako Sakramentua da, eta, orrekin, ez dago beste esatekoik. Naiz bear-bearrezkoa ez izan, etzaizu gaizki etorriko zauden adinean eta gauden mundu ontan...

—**Arrazoe do, jaune, ta pozik joango naiz konfirmatzea.**

A. ASTIZ ARREGI

ERLIJIOA ¿HERRIAREN LO-BELARRA?

Ikusten dugunez Kristau erlijio-neak; aundiak eta txipiak, aberatsak eta pobreak, Eliz-etxe berean bil-arazten gaitu.

Eta iduriz bederen, egiazko anai-tasun batek gaitu igande guziz elg-rreratarzen.

Ordea, axalezko begirapen ori zila-tu eta, galde dezakegu zerk di-tuen egiazki elgarretarazten gure giriztinoak; zerk gituen gu krista-bak elizarat bil-arazten? ¿Apezaren larderiak? ¿Usaia xaharrak? Biziko urrats aundietan Elizako ohorearen ukan-naiak?, eta nik dakita zerk oraino.

MARX, pentsalari, erlijioak, bere-ziki kristau erlijioa zuela jendea be-re biziko nai-gabe ta oñazetarik baz-tertzen. Erlijioaren bidez, gero obe-ta zuzenago baten menturaren men-turan, menturatutik zagola jendea lo, biziak emaiten zion uztarri dor-pearen pean, umil eta ixil injustzia-ren pean.

Ez ditaike erran, orai aditua arras-gezumra dela. Badakigu erlijioa ongi aditua artua baldin bada, ez dezake jendia loerian sar, bainan erna lezakela zuzentasun geiagoren alderateko gudian ere.

Ordea, mendez-mende joan den ix-torioan zenbat aldiz ez da Marx-ek errana egiztatua izan! Zenbat aldiz jendea ez da lo egon, lanari lotzeko orde, ustez eta erlijio-neak, kristau erlijio-neak lo egoitea galdatzen zion!

Zenbat aldiz, herriko buruzagi —aintzindari argituak eta abilak— ez dira erlijio-neaz baliatu jendearen lo atxik-arazteko?

Auniz aldiz, jendearentzat izan dela erlijioa iges-leku bat, loeria batean ezartzen zuen lo-belarra, ez dut erranen ezetz, ezen gertatua ger-tatu baita, nik nai ala ez.

Segur egia da, galdatzen duela kristau erlijioa, norberaren bizian eta erriaren bizian gertatzen diren guzien umiltasunean jartzea eta ja-saitea.

Bainan ezin dezaguke galda, zu-zentasun eta libertate geiagoren al-de lan ez egitea. Kristau zintzoak ez

du ixilik edo mutu egoiteko zuze-nik bere errian:

Beartsuak, ezin-bertzean bizitze-rat bortxatuak direlarik.

Lagunak, erritik joaten ari direla-rik, ezin biziak jo duelakotz erria.

Erlijioak manatzen du kristau gu-zieri eta naikari oneko gizon guzie-ri, injustizia den lekuan, justziaren alde lan egitea. Beartsuak diren le-kuan beartsu-erlijio laguntzea. Gerta-tzen diren makurrak, zombaiten ga-nik eldu direlarik, ez dugu ixilik egoiteko eskubiderik; orduan bai eginbide dugu elkarrekin oi-egitea, eta obendunen inarrotea.

Ongi aditua edo konprenditua den erlijioa, ez da ez, jendearen lo-belarra, bainan da gizonarentzat zu-zentasunarendako bidea, libertaterako bidea eta batasunerako bidea.

Gaizki aditua den erlijioa aldiz, da jendearentzat eta norberarentzat, ahulezirako bidea, indar-gabetzerako bidea.

Gaizki artua bada erlijioa, or-duan bai sartzen du jendea eta nor bera loerian. Orduan ba, jendea eta norbera, elkarretarik ditu urrun-tzen, arrotzen, etsai egiten.

Kristau erlijio-neko erakaspeneak eta urratsak gizonaren eta erriaren zerbitzari leial agertzen zauzkigu. Gizonak eta erriak dituzte argitzen, beren libertatean, bere zuzentasu-nean, eta elgarri ekarri bear duten maitasun zintzoan.

Erlijioa, gizonaren alde da; gero eta argituago, gero eta libreago, ge-ro eta zuzenago nola izan, dio era-kusten gizonari erlijioak. Erlijioe-geiazko eta ongi konprendituak, erri batean indar-iturria dakar gizo-nari eta erriari.

Erlijioe zintzoak emaiten duen gogo-indar orrek bear lituzke Erri bateko eta gizonen arteko edo gizar-teko, arat-unat guziak erabili.

Gogo-indar sano eta zuzen orren arabera, bear ginuzke estruktura guziak berri-eta zuzendua.

G. L.

(*"Herria"* Astekariatik artua.)

Iñauteak Napparroan



Urtero bezala aurten ere Lanz'ko erriarrek MIEL OTXIN gizandía erre dute Iñaute egunetan.

Zubieta eta Ituren'go erriek ere ospatu dituzte Iñauteak beren aintzinetako moduei jarraituz. One emen «Zanpantzar» bestari doakon «ttunttureak» beren bi yole gerrian deramazkitela.



Euskal mutillak extran- jeri'ko lantegietara

Urtearen lenengo bi illabeteak joan zaizkigu. Aurten, Otsaila, egun bat geiagokin gendun, «bisiesto-urtea» delako, alegia. Etzaigu ain gaizki portatu, eguraldi politik egin bai dizkigu. Orain, ikusi egin bear zer eskeintzen digun Aingeru Zaintzalea'ren egunez asi dugun Epailla edo Mar-txo'ko illabete onekin. Uda-berria'ren asiera, berak darama ta ez ligu-ke bekoki txarrik azaldu bear...

Bi illabete joan ta egunak poliki luzatzen ari diran ezker, alakoxeko «ezin-egon» batekin bezela, nabaitzen ditugu gure mendi-mutillak. Batek au, ta besteak onenbeste agintzen dietela, or dabilz zeneri itzeman ez daki-tela. Eskeintzak agitz onak diralako otsak dira. Urterik urtera, poliki gei-ago. Ez da, orregatik, arritzeko, emengo fabriketako irabazpideak, ezereztako (deuseztako) botatzea ta Frantzi, Suiza edo Itali aldeko bideak artzea. Len, «krisis» ta orain krisis ta erdi... nor geldituko da emen? Al dezakenak bein-tzat, agitz ongi egiten du.

Mutil geientxoenek, seguruaski «agur» egingo digute Eguerri alderaño. Bakarren batzuek egingo dute bai beren itzulitxoa, San Pedroak, Ama Bir-jinak ta onelako erriko bestak dirala-ta, bañan, oietakoak agitz gutxi izaten dira. Gañerakoak, ez oroitzen ez diralako erriko jaez, jasko gañera! baizik, oso urruti ta gaizki gelditzen zaielakotz etortzea; orregatik, ez dituzte bide luze oiek artzen. «Ximiko» (murtzika) aundi bat somatzen dutela erriko jaien eguna etortzen zaienian, ongi pensatzen dugu ¡nola ez! ta biotzpean diximulo pixka batekin gordetzen dutela pena ura. Gizajoak! Ez da mun-duan berdin bizi.

Irabazpide obeen billa joan bear orrek, ez dezaizuela okerrik ekarri. Orain suerte on baten bidez, geroko zoriona baizik.

GORTARI TA UGARTE YON

ERRIZ-ERRI



BAZTAN

OMENALDIA



Juan Bautista Jauregui Eun Urte zituen egunean. Billoba batek boneta edo txapela paratu dio eta orre ageri dire Juan Bautistaren bi alaba.

Goan den Urtarrillaren 30'ean (Ilbeitz), Baztan'go Berroeta'ko erri- an Omenaldi unkiagari bat egina dute. Berroeta erri tipia da, Elizondo'tik 15 Kilometroko bidean dago- na, mendi zelai batean kokatua eta leku atsegina ta osungarria. Berroeta'ko erria itxasoko zolatik 366 metro goiti dago eta denetara 215 bizilagun ditu, den denak euskal- dun garbiak or ezpaita inor euska- raz ezdakienik. Aixtion apatu dutan omenaldiari buruz zerbait erran nai nuke.

Juan Bautista Jauregi Perotxena, Oiaitxeko nagusi xaharrari omenal- di hunkigarria egin diote. Egun ortan Olaintxeko nagusi xaharrak EUN urtebetetze zituen, eta Berroeta'ko erriak nai izan zuten bere erriko seme agurgarri orreri maitasuneko omenaldi batekin erriarren zorio- nezko Agurra agertu.

Eun urte betetzea ohore aundia dela eztago dudarik. Zenbatek erdiesten dute adin hori? Baztan'en bai al da norbait?, eta Euskalerrian zenbat ote dire? Gutti ain segur. Yaungoikoren doai bat izan da bai, gizona adin ortan oraindik osasun onarekin arkitzea. Eun urte oketan zenbat euri, zenbat erauntsi on eta txar egin orre ditu Baztan'en... eta zenbat sortze ta eriotz. Juan Bautis- ta sortu zenetik Berroeta'ko erri- an laueun erriar il omen dire eta sor- tu aunitz geiago, ala behar ere. Zo- rionak Juan Bautista eta Yaunak urte aunitz kontseba zaitzala.

Besta tipia baño hunkigarria izan- du zan. Goizean Meza Olaintxeko etxe barnean. Gero erriar guziek bat banaka Juan Bautista'ri zorio- nezko Agurra eman zioten, Berroeta'ko erriaren izenean boneta edo txapela apain bat edergailutzat eman ziotelarik bere eun urte buruaren oroitarpenarako. Bonetaren gañean eta urrezko letrekin moldaturik, eun urte buruaren oroigarria zaraman. Nafarroa'ko Diputazioko «Caja de Ahorros» delako batasunak eta bai Baztan'go Balleko Etxeak beren edergaillu ta zorion Agurra egin zizkioten. Baztan'go txistulariak ere an zauden omenaldi ori edertu eta alaitzeko.

Baztandar guzien izenean gure zo- rion aundienak Jaun Bautista Jau- regi yaunari.

BIDE BERRIAK

Goan den udaberrian asitako bide berri oiek akitu urren daude. Eli- zondo'tik Beartzun'erañoko erregi- bidea dago, baño orai orko lanak utziak dituzte eta negu guzian ere gisa berean egonen omen dire ne- guko iru edo lau ilabete oketan bi- dearen zola pausa eta gogortu da- dien. Gero yarraikiko omen dituzte lanak eta orduan erregebide au behar den bezela eta ongi apaindurik utziko omen dute. Orabide'koa ere aintzinat doai eta orko lanak ere

eldu den udaberriako akitzen balu- teke kontent egoten al gara.

Beartzundarrak kontent dire eta bai bertze gañerakoak ere, oraiko bizi moldeak aisetasan oiek eta gei- ago ere eskatzen baititu, ortaz bada gaurko egunean bide zabalik gabe gibelapen aundia da eta baserrita- rren bizi modua obeagotzeko eta bai nekazalga ere azkartzeko, bide berri oiek arras beharrezkoak dire.

BIDE HORI NOIZ LUZATUKO OTE DUTE MUGARAÑO?

Noiz ikusiko ote dugu hori? Den- borarekin behar bada gure Balleko Etxea diruz ongi ornituta dagola- rik... Bizkitartean zain egon gaite- zen.

Bide luzatze orrek abantail aundi- ak ekarri dezake eta mugaz ber- tzaldeko erri zenbaitzuk Elizondo' ra sarbide polita izanen luteke, ba- tez ere Urepel, Esnaso ta Aldude' ko erriek. Aurrerapen aundia izan- en litzakela bistan dago, eta ez ba- karrik komertzio ta sos artu-emanen- tan, baita ere elkar geiago ezagutze- ko eta euskaldunen arteko lokarriek sendotzeko ere. Mugaraño bide luzatze hori eztagu noiz eginen den baño bizi denak ikusiko du. Denbora lekuko.

M. IZETA



ARAITZ

ARAITARRAK KALEAN

Badegu, bein eo beste, araitzarrok Tolosa-ra, Iruña-ra ta beste alako kaleerritara jua bearra. Jakiña, ez al gera beti-beti, alde batetik Malloa ta bestetik Elostia ta Santa Barbara, erbesteak batere ikusi gabe bizi- ko...!! Beisoka erosi bear dala..., sega-kirtena bear degula..., aizkora berria ondo etorriko zaigula... aitzekia etzaigu palta izaten...!!

Ala, lengoan, jetxi naiz, segadora bat ikusi bear detala-ta, Tolosa-tik beira ta... bat-badean non topatzen detan Joxe, nere aspaldiko lagun-zar Joxe!! Araitzarra bera, ni bezela. Baño ogeita bost urte oitan, Araitz- en andrea artuta, baserriko alaba; bera basarritar jatorra zan bezela) kalea-zuloan bizi dana:

—Pijo, Joxe!!!
—Bai motel... ementxe gaituk; zartzen eta txartzten...!!!
—Bejondaikela... ta emazte on- do?

—Bai, oso ondo!!
—Semelabarik bai al dek?
—Bai. Sei. Ara or bi, etxera diez- telal

Bi gatzetxo, nexka-mutillak. Amar- amabi urtekoak.

—Egun on, gatzetxoak! Ongi bizi altzerate kalean? Ez al dezue nee- kin Araitz-era etorri?

—No sabemos vasco!
Txundituta gelditu nitzan... «no sabemos vasco», araitzar semar- emazte euskaldun jatorren seme-alab- ak!!!!!!

Egun ortan bertan, aurreraxeago, nexkatx apain bat ikusten det. Apa- ña, polita, oso ongi jantzia, «seño- rita» paregabea... Ongi begiratu diot, eta...

—Zu ez al tzera baño Joxepita? Araitzko, arako etxe artakoa...? Kox- me nere lagun zarraren direl

—Bai, alaxen naiz.
—Ta emen bizi al tzera?
—Bai. Ementxen, iru urte aue- tan!

—Ta zertan ari zera?
—Badakizu. Maixtra ikasi nun. Ta orain emen, maixtra nago. Eus- kal ikastola batean, euskera erakus- ten, eta euskeraz nexka-mutillak ez- tzen. Etxeko sukaldean ikasi nuen euskera ederrari zor diot nik gaur ongi irabaztea ta ongo bizitza. Ka- le-erri auetan gero ta geyo dira eus- kera ikasi ta euskeraz itz egin nai dutenak. Ta ni bezelako maixtrak, gerez euskaldun jaio ta euskera mam- iz umetandik ikasitakoak, eskabi- de aundia degu ta gero aundiayagua izango degu...

—Ongi da, Joxepatxo. Oso ongi... Askok poztutzen naiz!!!!

—Araitz-ko gurasoak! Ez izan za- barrak!! Seme-alabak erderaz ikas- tea ongi dago!! Frantzea, alemana, inglesa ikasten ba dute... oso ongi dago!!!

Ez dezatela, baño, orregatik, eus- kera aztu!!!!
Eutsi dezagun Araiz-en euske- ra!!!!

Gure «fantasia», ontan, «baxaka» xamar izatea bear du. Utzi alde ba- tera «sesioak». Izan gaitzen «mar- rrajo»ak. Araitz en euskera indartu- rik «ezkillak eta adarrak jo» ditzag- un. Inguru errietako guziak, eus- kaldun zintzo jarraitzen degula ta jator jokutzen degula ikusi deza- ten!!!!

MALLOPEKO KUKUA



LEITZA

LASARTE BERTSOLARIARI OMENALDIA

Otsaillaren azken igandean, 25 egunean, Leitzako erriak bere erri- ko seme dan Lasarte Bertsolari on- onari omenaldi biotzko eta «xa- mur» bat eskeiñi zion.

Lenbizikoz Meza Nagusia, dena euskeraz jakia! Meza emallea: Ber- tako Jaun Erretorea izan zan, Pre- dikalaria On Jose Manuel Lasarte Ofertorioan Lasarte eta Lazkano bertsolarien zenbait bertsu kandatu zituzten. Leitzeko Kantari taldea ari izan zan.



Manuel Lasarte bertsolaria.

Mezaren ondotik Erriko Plazan dantzari, bertsulari eta txistulariak ari izan ziran, eta ondorean Zine- lekuan «Ez dok amairu» kantari tal- de ezagutuak gaurko kantuak abes- tu zituen. Azkenean Lasartek ber- tso batzuek bota zituen.

Eguerdian Ohorezko Bazkaria, eta Leitzarrek txapela eder bat eman zioten.

Atsaldean aizkor-apustua, eta ber- ritz bertsolariak Lasarte, Lizaso, Agirre, Lazkano eta Mugartegi ari- tu ziren.

Ain ongi merezi zuen Omenaldia guztiz ederra izan zen, eta guk ere lerro oketatik gure agurrak beroenak igortzen dizkiogu Lasarte bertsola- ri maiteari.

Argitaratzen ditugu emen Lasar- te'ri eskeindutako Omenaldi oni bu- ruz Ignazio Eizmendi «Baxarri» ber- tsolari aundiak jarritako bertsu auek, Donosti'ko «Voz de España» perio- dikoan agertu zirenak.

— 1 —

Lasarte, lagun jator, nere itzak entzun: Zure ordu aundiak iritzi bear zun. Ona ziñala lendik nik antzeman nizun, erakutsia dezu zer balio dezun.

— 2 —

Zure bertsuak beti goxo ta txukunak, ez ankamotzak edo beso luzedunak. Txoratuak dituzu kristau euskaldunak olaxe luzitzen du berezkoa dunak.

— 3 —

Udaberri txoria nork ixillerazi? zure udaberria

orra or iritxi. Sasoioa zaude-ta lanari ez utzi, Jainkoak emandako doai orri eutsi.

— 4 —

Dezun erretasuna bai ederra dala, zure talentu ori ezta ez argala. Gizatasunez ere etzaude makala, apalik inor bada zu zera apala.

— 5 —

Omenaldi egiten dizute gaur Leitzako, bertakoa izanik ala komeni zan. Utzi ezin nezaiken lan batzuk nik izan, bestela poz askorik azalduko nintzan.

— 6 —

Erriarrak zuretzat zenbat borondate, erakusteko berriz aukera daukate. Lagun bat emen dezu zeuk nai dezun arte, artu besarkada bat Manuel Lasarte



SALDIAS

TELEBISIOZ ESKOLA

Otsaillan asi zituzten ikaskizunak telebisioz. Ordu bat irauten dute: 11 orduetatik 12'etara. Ongi eratu dituzte erakusgaiak. Eskoletan erakusten diran guziak ematen dituzte. Bere z umientzat eratuak. Baño gañerakoentzat ere ezdira gaizki etorriko. Lenago ikasia, berriz ber- ritzea, deneri oso ongi datorkigu. Gurasoak eta geienak benen umieri ejemplo ona emategatik bederen.

Denetatik erakusten dute. Nola esku-lanak, ala izkuntzak; nola kon- tutako goraberak, ala istoria eta geo- grafia... eta abar...

Erakuskizun oiek Maiztaren az- ken alderano izanen dira.

Balio luke ezertan artzea, ez ba- karrik umeak, baita ere umetik atri- ak.

BIDE ZABALA

Bide berria (karretera) Tolare'ko etxe gañean oso gaizki dago, edo- zein gauza pasatzeko arriskuan. Egin bear den gauza da: «Diputazioari» gatzigatu nola dagon.

BASERRIETAKO UMETXOARI BAZKARIA ESKOLAN BERTAN

Astelenetik asiko dira Mantxene' ko Eskolan bertan, nai duten ume- tso guzieri bazkaria ematen. Ume- txoentzat mesede aundia izanen de- la pentsatzen dit, negu aldiari ba- tez ere. Gañerakoan, umea bere aita-amakin dago obekiena.



ALTSASU

Gure erri giro goxo bat suma- tzen da euskeraren alde. Euskera guretzat ezta itz utsa bakarrik, ez, gure izkuntz egiazkoa baizik, Jain- koak emana.

Gendeak mundu ontan ez zela ba- lio dirurik irabazteko esaten du, ba-

ña gende orrek bere bizia zertara- ko balio duen, bere buruari galde- tu al dio?

Illabete ontan ba, umeentzat Ikas- tola ideki dute. Eskola ondoren mu- tiko eta neskatiko euskera ikasi nai dutenek, ordu erdi bat gelditu bear dute.

Gure izkuntza dala-ta eskola bi- tartean eta denentzat eman bearko lukete baña... zerbait da ere limos- natxo ori.

Berrehun bat izenpetuak dira, eta ongi dago asteko. Gazteak ere, zintziñe asi nahi dute eta lanean ari dira ikasguak antolatzeko.

Aurrera «Gure Etxea»-ko mutil zintzoak! Zerbait badakigu zuen alaitasunaz. Lengo «Naparroko Men- digoizaleen Egun Aundian» Lekun- berriko karriketan zuen alaitasuna ikusten zan.

Aurrerl Mundu onek alako gaz- teak bear ditu, alaitasun eta sasoi- arekin.

Gaurko gazte motel batzuen on- doan egoteak naska ematen du; oien aldetik iges egin bear dugu, oiek ez zute merezi gure izen maitagarria, gazteak, ez biziak bai illak dirala- koz.

Eta orain emendik, nere Naparro- ko anai gazte denei, oiur bat egin nahai dizuet:

Ez nazaitze jo ta jeiki gure nortasun billa alai, jarrai ta ausarki nappar zerala mutilla; alai, jarrai ta ausarki gure Erria ez zala illa; alai, jarrai ta ausarki ez zala il t'il ez dedilla.

MIKEL

IMOTZ

EUSKERA IMOTZEN

Imotz arana, Iruñatik ogeitamar kilometrotara dago, eta Irurzundik amarretara. Aran au ezta aundia, baño osot txikia ere ez.

Zortzi erri ditu, eta millen bat bu- ru. Erri-buru edo kapitala Etxaleku da. Beste erriak: Oskotz, Muzquit, Eraso, Zarranz, Latasa, Goldaraz eta Urriza dira.

Imotzen euskera galtzen dioa: umeak ez dute euskera ikasten, eta ikasten baldin badute, geiago iza- teagatik, ez dute mintzatu nai. Ala ere, badira erri batzuek euskeraz mintzaten direnak. Banaka ikus ditagun erri auek:

Etxaleku: Berreun buruko erria. Geienak euskeraz badakite; ezta kite- nak, bi edo iru, Etxalekun ezkon- duak dira. Auen semeak, erderaz ikasten dute lenbiziko, baño oso agudo euskeraz ere. Euskeraz agiten da jolasa, (neskato ergel bat edo beste erderaz egiten dutenak izana- gatik).

Oskotz: Emen erderaz mintzaten dira, bein edo beste euskeraz ere bai. Ogei urtez gorakoak, geienak euskeraz badakite; ume txiki bat- zuek ere asi dira euskeraz.

Muzkitzen, Etxalekun bezelatsu dago euskera. Gazteak, pixka bat gu- txiago egiten dute euskeraz.

Erason: Ezta euskeraz jolasik egi- ten. Ogeitamar urtez gorakoak eus- keraz badakite.

Zarranz: Famili bat ez beste guziak euskeraz mintzaten dira. Famili au Beuntzatik etorria da.

Latasa: Ezta euskeraz itz egiten. Zar geienak badakite.

Urriza: Emen ere, zarrak badaki- te, baño gazteak ez.

Goldaraz: Emen denak euskeraz mintzaten dira.

Goldarazten, Etxalekun, Osko- tzen, Muskitzen eta Zarranzten eliz- kizunak euskeraz egiten dira; beste iru errietan erderaz.

JOSEBA IMANOL ALEMAN

"PRINCIPE DE VIANA" ILLEROKOA ARTZEN DUTEN GUZIERI OAR BAT:

Illabeteroko eder ta goragarri au artzeko izendatuak dauden guziak, ez dute ZUZEN ta ILLABETERO artzen. Illabete bakoitza' ren emezortzirako ateratzen da moldiztegitik ta ogeirako egoten da gure errietan.

Zorionez, gure errietako kartero asko, ezin ta geiago zuzenak dira beren egin bearretan. Bañan, zoritxarrez, beste asko, agitz zabar- rarak ta alperrak dira. Errietaraten diran errebestak, utskeritako ta propagandak liraken bezela artzen dituzte kartero zabar ta jauntxo oiek! Ez. Ta, ez jaunak. Errebesta oiek —naiz asterokoak edo illero- koak izan— beste edozein periodikok ainbat inportantzi dute. Geroztik, obligazioa daukate len baño len nor berari entregatzeko.

Orregatik, "PRINCIPE DE VIANA" artzen ta leitzen dezuten guziak, illabetearen azken egunetarako artzen ez badezute, eskatu lasa ta bildurrik gabe. Bortxatuz. Ongi bai dakigu errebesta asko zo- koratzen dituztela kartero askok lan pixka bat egitea tokatzen zaie- lakotz. Ori, inñaloe ere ez dago ongi. Errebestak, zerbait en gatik ateratzen dira ta ez askoren "kapritxorako".

Eskerrak, kartero zintzoeri, beren eginkizunak ain ongi betetzen dituztelakotz. Ta... zabarrerri, mesedez eskatzen zaie bete ditzatela beren obligazioak.

BERTSOLARIAK

Otsailaren 4'ean eta 11'ean, sekuleko bertsolari Sariketa izan dugu Donostia'n. Lenago ere egin dira bertsolari txapelketak baño orai Donosti'ko «Anoeta»n egin dutena guzian gañekoa izan da. «Onena» izeneko pentsu etxea izan da bertsolari Sariketa Aundi unen laguntzalea, etxe au baita sariak eman dituen, eta zer sariak! Irabaztaleak bazituen 100.000 pezeta, Bigarrenak 50.000, Irugarrenak 40.000, Laugarrenak 30.000, Bortzgarrenak 25.000. Seiga-

rrenak 20.000. Zazpigarrenak 15.000 Zortzigarrenak 10.000, eta bertze gañerakoei 5.000 bakotxari. Sari izigarriak beñere ez bezalakoak, Lenagoko Txapelketetan bezala Euskaltzaindiak bere gain artu ditu Sariketa Aundi unen antolabidea. Amesei bertsolari ari izanak dira, Euskalerriko oberenak zeingeiagoka ikusi ditugu eta emen beren izenak: Gipuzkoarrak, BASARRI, UZTAPIDE, MITXELENA, LAZKAO-TXIKI, AGIRRE, LAZKANO, LIZASO, GARMENDIA. Bizkaitarrak, LOPATEGI, AZPILLAGA, MUGARTEGI. Naparrak, XALBADOR, AROTZAMENA, LASARTE. Lapurditarrek, MATTIN, XANPUN. Denetara amasei. Sariketaren Juradoa bortz gizonen osatzen zen, denak Euskaltzaindiko jaunak eta bertso konfuetan aunitz dakitenak; auek, Gipuzkotik San Martin ta Juan Mari Lekuona; Naparroatik Jose Mari Sarustegi; Bizkaitik Amuritz; eta Lapurditik Itzaina, ziren. Jose Mari Iriondo izan zen gai emale ta zuzendari.

Lenbiziko igandean 16 bertsolariak aritu ziren, auek bi taldetan bereirik eta talde bakotxak zortzi bertsolari zituela. Taldeak bazituzten beren izenak, batek «Txirrita» taldea eta bertzeak «Xenpelar» taldea. «Txirrita» taldekoak goizean aritu ziren eta ortan zauden, Agirre, Uztapide, Lazkao-Txiki, Mugartegi, Azpillaga, Mattin, Xalbador, ta Lasarte. Zortzi auetatik lau bereki bearrak ziren. Beren eginkizunak una emen: Lendabiziko saioa bakarka bidena bertso, Iriondo jaunak puntua emanda. Bigarren saioa bidenazka, iruna bertso ofizioa emanda. Irugarren saioa bakarka, bidena bertso gaia emanda. Saio unta bertsolariari bi doñu ematen zitzaizkion autatzeko, bietako batean kantatu zezan. Eta laugarren ta azken saioan berriz bakarka, gai bateri buruz iruna bertso kantatzeko baño oraingoan berak nai zuten doñua artuta. Lau saio ok egin ondoren bertsolarien eginkizunak akitu ziren.

Oraingo Sariketa unta erabakiak bertze gisa batera eginak dituzte. Saio bakotxean Maikoek beren erabakia artu ta yendearen aintzinean agertzen zuten, bertsolari bakotxari merezi zituen puntuak emanez. Lau saioak akitu ta ondoan eta denen puntuak bildurik; geienak zituztekan irabaztale.

Goizeko saio unta gertatukoak agertuko ditugu:

Uztapide ta Xalbador berdin bakotxak 367 puturekin. Mattin'ek 356. Lasarte'k 346. Lazkao-txiki'k 328. Azpillaga'k 316. Mugartegi'k 309. Agirre'k 299.

Uztapide, Xalbador, Mattin ta Lasarte izendatu zituzten aintzinat segitzeko, bertze gañerakoak kanpo utzirik.

Arratsaldean Xenpelar taldekoak aritu ziren eta goizean bezala bertsolarien saioak gisa berean moldatu zituztela. Arratsaldeko auzia Maikoek olaxe erabaki zuten:

Basarri'k 369 puntu. Arotzamenak'k 367. Lopategi'k 356. Mitxelena'k 347. Lazkano'k 341. Garmendia'k 337. Lizaso'k 328. Xanpun'ek 303.

Arratsaldeko saio unta, Basarri, Arotzamina, Lopategi ta Mitxelena autatu zituzten eta lau auek, goizean bereki zituzten bertze lauekin batean, urrengo igandean Otsailaren 11'ean Azken Saio aundian ari-



Inazio Eizmendi «Baxarri» bertsolari on eta aundia.

tu ziren. Azkenengo igande unta aintzineko igandean baño yende geiago bildu zen, Anoeta bete betetik ixkilin bat kokatzeko lekuri ere etzela. Zer yendekeeta, an bazen su ta kar, belarriak erne entzuleen artean eta denek bertso egarriz.

Saioak asi aintzin Iriondo zuzendariak adierazi zuen nola bertsolari ta Sariketaren antolatzaleen artean elkar-izketa bat izan zuten eta azkenengo erabakiak nola ziren. Irabaztaleak eun milla pezetak bereganatzeko bigarrenari bear zion guttinetik amar puntuen aldea edo bentaja atera edo bertzenaz amar puntu oien barnean sartzen zirenak, elkarren artean bear zuten saio berri bat egin. Gero azken saio ortan irabaztaleak sari aundia erdiesteko, bere ondokoei atera bearra zuen guttinetik bortz puntuen bentaja eta onela ez gertatzekotan, bortz puntu oien barnean sartzen zirenen artean sariak erdibanatuko zituzten.

Aintzineko igandean bezala bertsolarien saioak gisa berean egin zituzten; bakarka bidena bertso puntua emanda. Bidenazka ofizioa emanda. Bakarka doñu berexiarekin

eta azkenik berriz bakarka iruna bertso berek nai zuten doñua autatuta. Aintzineko igandean bezala, saio bakotxean Juradoak bere erabakia artzen zuen bertsolariari merezi zuena emanez. Gure kobliaren doaiak an agertu ziren, denek beren ahalmenak ongi aski erakutsi zituztela. Lau saioak egin ondorean bertsolarien gora-berak gisa unta gelditu ziren:

Basarri'k 364 puntu. Lasarte'k 361. Xalbador'ek 360. Uztapide'k 352. Lopategi'k 349. Mattin'ek 348. Mitxelena'k 341. Arotzamina'k 317.

Basarri'k puntu geiena atera zituen baño bigarren ta irugarrenari ezpaizaben amar puntu atera, iru lenbizikoek azken bat egin bearra zuten bertze gañerako bertsolariak kanpo utzirik. Azken saio unta bakarka aritu ziren eta iruek gai berarekin. Bi gai zituzten, bat «Gizonari» iru bertso eta bigarrena, «An-

dregaiarekin eta bere aitarekin gertatutako kontuak» Lehenik Xalbador aritu zen, bertze biek kanpora aterata, Xalbador'en erranak aditu etzezat. Gero Lasarte gisa berean eta azkenik Basarri. Maikoek erabakia arturik, ona emen iru bertsolarien gora-berak:

Basarri'k 602 puntu. Xalbador'ek 598. Lasarte'k 585.

Basarri irabaztale, baño, Xalbador bigarrenari lau puntu baizik ezpaizkion atera, biek berdin utzi zituzten lenbiziko ta bigarren saria erdi bana eginik. Iru bertsolariak ederki aritu ziren eta ez tugu inor berexiko denak onak baitire.

Sariak gisa unta banatu zituzten: Irabaztaleak, Basarri ta Xalbador. Bakotxak 75.000 pezeta.

Irugarren. Lasarte. 40.000 pezeta. Laugarren. Uztapide. 30.000 pezeta.

Bortzgarren. Lopategi. 25.000 pezeta.

Seigarren. Mattin. 20.000 pezeta. Zazpigarren. Mitxelena. 15.000 pezeta.

Zortzigarren. Arotzamina. 10.000 pezeta.

Eta bertze gañerako zortzi bertsolariari, 5.000 pezeta bakotxari. Gañera irabaztaleak eta sei lenbizikoek «Kopa» ederrak artu zituzten.

Zorionak bi irabaztuneri eta denek ar ditzatela gure goresmenik maitekorrenak batez ere iru *naparrak*, *Arotzamina* lesakarra, *Lasarte* leitzarra ta *Xalbador* urepeldarra, iruek Nafarroa'ko Erresumako euskaldun seme.

Zorionak ere «Onena» pentsu etxeari, Euskaltzaindiko Maipuruko Yauneri eta Sariketa Aundi orren antolatzale guzieri.

Donosti'ko «Anoeta»n izan garenak, geren biotzetan orotzapen eder bat ekarri dugu. Bertsolari bista auek maitagarriak izaten dira, emen eskuarak badu indarra eta euskaltzalearen biotza bozkarioz betetzen da. Gora gure Bertsolariak!

M. IZETA



Xalbador mugaz bertze aldeko nafar bertsolari aipatua.



Urmeneta erri gizona

Iruñeko Erri-irratia (Radio Popular) txapelketa polita asmatu digu, oraikoan. Irunseme errikoien jendearen irizitza nor den jakiteko txapelketa. Urtearen buruan egin dituen gauzengatik denen esker ona merezi luken gizona aukeratzea.

Ez gera gauza auetako oso jatorrak; erantzuna emate orreke traba aundiak sortzen bai dizkigu geienean. Alare 19.094 jende eman dute Iruñen bere txartela. Nik esango nuke asko dela.

Pozez ikusi dugu «Principe de Viana» elkargoan zuzendari dugun Urmeneta Diputadua jauna eman dutela buru. 7473 puntu atera ditu, ogei ta bat gizon ospetsuren artean.

Bere lankide eta adiskideak inor baño obeki dakigu gizon onen trakasa ta denen mutil izatearen berri; baño erria, kaleko jendea ere konturatua dela eta biotzean daramatela jakiteak pozten gaitu. Norbait merezi balin ba zuen, berak merezi zuen erritarren esker on au.

Zorionak, lankide on eta adiskidea! Ohorezko izendapen onek zure lan ederrean aurrera jarraitzeko poza eta kemen berria eman dizula!

Urte askoz!!



Bigarren egunean ari izandu ziren zortzi bertsolariak. Ezkerretik eskuin alde: Mitxelena, Mattin, Uztapide, Lasarte, Baxarri, Xalbador, Lopategi eta Arotzamina.

Redakzionaren oharra

Aldizkari unta 21-22 eta 23 numerotan agertu. A. Apat Echebarne (A. Irigaray) eta A. Astiz Arregui jauneeen artikuloeri buruz, Redakzionaek badaki ezdituztela elkar mintzeko gogoarekin idatzi. Berri au ematean Redakzionaek atsegin artzen du eta bide batez adiarazten, eztabaiaren bazter, kanpo gelditu dela, bataren edo bestearen alde sartzeko asmorik batera gabe. Bakea izan dezagun, eta goazen aurrera.

Nota de la Redacción

Con relación a los artículos de nuestros colaboradores señores A. Apat Echebarne (A. Irigaray) y A. Astiz Arregui aparecidos en los números 21-22 y 23 respectivamente de esta Revista, la Redacción sabe que ambos no han tenido la intención de que se les atribuya significación ofensiva alguna. La Redacción se complace en dar a conocer lo que antecede, expresando su ánimo de no intromisión en aquellos, ni pretender tomar partido por ninguna de ambas partes, que son las responsables de sus artículos íntegramente.